

PRENTSA OHARRA: 2018.11.23

Juan Kruz Igerabidek ahotsa emango dio euskal literaturari Guadalajarako Liburu Azokan

- ***Ez Lemaio. Arrasateren erreket*a aurkeztuko du Espainiako Haur eta Gazte Literatura saridunak.**
- **Etxepare Euskal Institutuak euskal idazleen presentzia bermatu du Guadalajaran zortzi urtez jarraian euskal literaturari erakusleihoak eskaintzeko lanari eutsiz.**

Euskal literaturak ahotsa izango du beste behin azaroaren 24tik abenduaren 2ra egingo den Guadalajarako Nazioarteko Liburu Azokan (FIL). Urtero milaka profesional, editore eta egile elkartzen dira Iberoamerikako literatura jaialdi handienez eta lehen lerroko hainbat izenekin batera, Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956) bertan izango da, Etxepare Euskal Institutuaren eskutik, euskal literaturari ikusgaitasuna emateko.

Espainiako Haur eta Gazte Literatura Saria jaso berri duen idazleak jarraipena emango dio euskal egileen presentziari Guadalajaran. Kirmen Uribe, Iban Zaldúa, Arantxa Urretabizkaia, Bernardo Atxaga, Karmele Jaio, Harkaitz Cano eta Mikel Ayerbe, eta Anjel Lertxundi izan dira azken zortzi urteetan, Etxepare Euskal Institutuaren ekimenez, FIL-era bertaratu diren idazleak. Halaber, urtero legez, Euskal Editoreen Elkarteak eta Euskadiko Editoreen Elkarteak dozena bat argitaletxe bilduko dituzte stand batean.

Igerabidek *Ez Lemaio. Arrasateren erreket*a eleberria aurkeztuko du Guadalajaran, eta programa ofizialeko zenbait jardueratan hartuko du parte. Istorioa erdi aroan dago girotuta eta gertakizun historiko bat du oinarri: Arrasateren erreket

Oinaztarren eta Ganboatarren arteko borroka latzaren testuinguruan. Horrekin batera, euskal

literaturari ahalik eta oihartzun handiena emateko helburuz Etxepare Euskal Institutuak agenda mediatiko sendoa antolatu du .

Azaroaren 25ean, igandea, 'Los lectores presentan' atalaren baitan, lau irakurle anonimok, liburua alde aurretik irakurri eta gero, *Ez Lemaio. Arrasateren erreket*a aurkeztuko dute. Segidan solasaldi bat egingo da idazlea eta publikoaren artean. Atal hau 2003. urtean sortu zuten irakurleei ahotsa eman eta liburu zaletasuna sustatzeko. Ordutik 70etik gora idazlek hartu dute parte programan.

Azaroaren 26an, astelehena, 'Ecos de la FIL' atalaren baitan, Colegio Reforma bigarren hezkuntzako eskolara bisita egingo du bertako ikasleekin solasean aritzeko. Egileekin testuinguru informalean gauzatzen diren elkarrizketen bidez irakur zaletasuna sustatzea du helburu programak. Aurrerago, ikasle horiek lan horretara hurbiltzeko aukera izango dute idazlea ezagutu izanaren motibazio gehigarriarekin.

Amaitzeko, azaroaren 27an, asteartea, Igerabide Salon de la Poesía delakoan arituko da. Bere poema gogokoenak irakurriko ditu bertan.

Hori guztia baino lehen, azaroaren 23an, Euskaraldiaren hasierarekin bat eginez, Mexiko Hirian izango da idazlea. UNAM-en (Universidad Nacional Autónoma de México) bertako euskara eta euskal kultura irakurleak antolatutako literatura solasaldian hartuko du parte.

Iberoamerikako literatura jaialdi nagusia

Munduko literatura jaialdi garrantzitsuenetakoa da FIL eta Iberoamerikako liburugintza profesionalentzat urteko hitzordu nagusia. 32. edizio honetan 800dik gora egile bertaratuko dira, 20.000tik gora profesional elkartuko dira eta ehunaka nobedade aurkeztuko dira.

Letra iberoamerikarretako izen nabariez gain –António Lobo Antunes, Leila Guerriero, Gioconda Belli, Laura Restrepo, Raúl Zurita, besteak beste- beste literatura batzuetako egile asko hurbilduko da Guadalajarara eta egungo panoramako ahots esanguratsuak ere bertaratuko dira, Orhan Pamuk (literatura), George F. Smoot (fisika) eta Mario Molina (kimika) Nobel saridunak, Ida Vitale poeta

- FIL Literatura Saria jasoko du- eta Mircea Cărtărescu idazlea, besteak beste. Aurten Portugalek hartuko du Madrilen lekukotza ohorezko gonbidatu bezala.

Juan Kruz Igerabideri buruz

Juan Kruz Igerabide (Aduna, Gipuzkoa, 1956) haur eta gazte literatura idazlea, itzultzailea eta poeta da. Magisteritza ikasketak egin zituen eta Filologian doktorea da. Lehen hezkuntzako irakasle izan zen eta, gaur egun, katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean.

Haur literaturaren alorrean hainbat ikerketa burutu ditu; *Bularretik mintzora. Haurra, ahozkotasuna eta literatura*, Erein, 1993; eta poesia liburuak idatzi ditu, *Haur korapiloak*, Pamiela, 1997; *Botoi bat bezala*, Anaya-Haritza, 1999; *Mintzo naiz isilik*, Elkar, 2001; *A tus ojos mi voz*, La Galera, 2004; *Munduko ibaien poemak*, Elkar, 2004; eta *Poemas para los ríos del mundo*, Hiperión, 2004.

Halaber, Jonas protagonista duen bilduma idatzi du. Horien artean dago 1999. urtean Euskadi Saria irabazi zuen *Jonas eta hozkailu beldurtia*, Aizkorri, 1999,.

Gazte literaturari dagokionez 20tik gora liburu idatzi ditu Igerabidek, besteak beste, *Elena eta arrastiria*, Elkar; *Hasta que lo sepas todo*, Oxford; Antso Lizarra, Aizkorri; *Suena el timbre*, Alfaguara; *Bagdadeko aurpegiak*, Erein eta *Abezedario Titirijario*. 2018ko Espainiako Haur eta Gazte Literatura Saria jaso du lan honekin.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus